

ENPRESAN EUSKARA TXERTATZEKO ESKULIBURUA

1. EUSKARAK LAN MUNDUA
BEREGANATZEAREN GARRANTZIAZ
2. EUSKARA PLANEN ZABALKUNDEA EUSKAL HERRIAN
3. EUSKARA ENPRESAN TXERTATZEKO ARRAZOIAK
4. NOLA TXERTATU EUSKARA ENPRESAN
5. NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZA
LANTOKI PRIVATUETAN EUSKARAREN
ERABILERA ETA PRESENTZIA SUSTATZEKO
6. BAZTANGO UDALAK ESKAINTZEN DUEN LAGUNTZA

1- EUSKARAK LAN MUNDUA BEREGANATZEAREN GARRANTZIAZ

- Euskararen erabilera, oro har, txikia da esparru sozio-ekonomikoan. Horregatik, hain zuzen ere, ezinbestekoa da lan mundura hedatzea. Izan ere, lan munduan ematen dute heldu askok beren denboraren zati handi bat. Areago, euskal hezkuntzari esker hein handi batean, gero eta gehiago dira euskal hiztunak, haur eta gazteak bereziki. Eskualde euskalduna da gurea, eta orain arte nahikoa erdalduna izan den eremua ere euskalduntzeko erronka daukagu. Zeregin horretan bidelagun izateko gonbidapena egin nahi dizuegu.
- Oso zabaldua dago lan mundua modu naturalean, esku-hartze planifikaturik gabe, euskaldunduko dela, baina kontrakoa gertatu ohi da: euskaraz ikasi duten langileen trebetasunek txarrera egingen dute erabilera ezaren poderioz. Izan ere, lantokietako hizkuntza nagusia gaztelania izan ohi da.
- Lan munduan eragin behar da beste esparru batzuetan (hezkuntzan, administrazioan, hedabideetan...) egindako lana finkatzeko. Horretarako, eragile guztien esku-hartzea eta elkarlana beharrezkoa dira: administrazioa, sindikatuak, enpresariak eta euskalgintza.
- Nafarroako mendialdeko euskara zerbitzuek ([Baztango Udala](#) | [Bortzirietako Euskara Mankomunitatea](#) | [Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitatea](#) | [Sakanako Mankomunitatea](#)) era guztietako enpresei proposatu nahi diete euskararen aldeko urratsak eman ditzatela. Bide horretan laguntzeko eskuliburu hau prestatu dute beren enpresan euskarari presentzia handiagoa eman nahi dioten horiei argibidea eta aholkua emateko.



2- EUSKARA PLANEN ZABALKUNDEA EUSKAL HERRIAN

- Lan mundua euskalduntzeko lehen urratsak duela hogeita hamar bat urte egin ziren, batik batik kooperatiben eskutik, eta duela 20 urtez geroztik dinamika hori azkartu egin da.
- 90eko hamarkadakoak dira lehendabiziko euskara planak: Elay, CAF, Arlan eta Ikerlan, esate baterako. Nafarroan ere badira bidea egin duten enpresak: Fagor-Ederlan Tafalla, Mapa Iruñea, Conservas Iturri, Bodegas Lezaun, besteak beste.
- Urtez urte gehituz joan dira haien jardunean euskara txertatu duten enpresak. Gainera, gaur egun bestelako enpresak ere badira.
- Horiek horrela, aholkularitza enpresak ere ugaltu egin dira:



Txakur 1
48005 Bilbo
94 4159512
www.aek.eus
ahize@aek.eus



Luzarra 10
48014 Deustu
94 4480000
www.artez.net
posta@artez.net



Zelai Haundi 3.
Osinalde industrialdea.
20170 Usurbil
943 363040
www.elhuyar.eus
elhuyar@elhuyar.eus



Uriburu 9
227 PK
20500 Arrasate
943 711847
www.emun.eus
emun@emun.eus



3- EUSKARA ENPRESAN TXERTATZEKO ARRAZOIAK

- **Merkatu berriak.** Haien produktuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresak hurbilago daude bezeroarengandik, eta, alde horretatik, euskara merkatu berrietara iristeko balio lezake. Euskara merkatu berriak irekiko dituen faktorea da, beraz.
- **Hizkuntza-kudeaketa.** Beste gai eta egiteko asko sistematizaten diren bezala, hizkuntzen erabilera eta kudeaketa ere antolatzea eta sistematizatzea egokia da, eta euskara-plana da horretarako biderik eraginkorrena. Euskara-planaren bitartez errazagoa eta egingarriagoa da hizkuntzen erabilera ordenatzea eta enpresaren prozeduretan jasotzea.
- **Kalitatea.** Euskara, beste edozein hizkuntza bezala, lan mundurako baliagarria da; badira euskaraz lan egiten duten enpresa erreferentzial asko: CAF, Fagor, Irizar, Laboral Kutxa... Hizkuntzen kudeaketa egokia kalitatearen ezaugarria da (berrikuntza, enpresaren dinamikotasunaren adierazgarria...) eta kalitatearen parametroetan plus bat izan daiteke.
- **Elementu bereizgarria.** Merkatua gero eta globalizatuagoa dagoen honetan, euskara elementu bereizgarri gisa erabil daiteke. Izan ere, kontuan hartu behar dugu enpresek gero eta gehiago behar dituztela besteetatik bereziko dituzten ezaugarriak. Enpresaren kudeaketan hizkuntzak eta hizkuntzen erabilera txertatzeak produktuari balio erantsi bat eman diezaioke, arreta pertsonalizatuagoa, hurbiltasun kulturala eta prestakuntza erakusten dituelako.
- **Kohesioa.** Euskara planek enpresa barruko kohesioa, giroa eta langileen gogobetetzea sustatzen dute eta, gainera, erabilera sustatzeko proiektu batean inplikatzeko diren langileak enpresaren proiektu batean inplikatzeko dira. Era berean, horrelako egitasmo baten bidez enpresak jakin dezake zeintzuk diren langileen nahiak eta kezak.
- **Irudia.** Euskarari tratamendu egokia emateak, euskara enpresaren irudi korporatiboan txertatuta edukitzeak, eta euskararen erabilera sustatzeak, enpresaren irudia hobetzen laguntzen du, tokian bertan, baita merkatu eremu zabalagoetan ere. Hizkuntzen kudeaketa egokia enpresaren irudirako beste elementu positibo bat da.

3- EUSKARA ENPRESAN TXERTATZEKO ARRAZOIAK

- **Aitzindaritza.** Gero eta bezero gehiagok jakinen dute euskara etorkizunean, eta, alde horretatik, enpresek aitzindariak izan behar dute.
- **Bat egitea.** Oro har euskal gizartearen jarrera ona da euskararekiko. Enpresak ere jarrera ona badu eta euskararen erabilera handitzeko urrats praktikoak ematen baditu, pertsonak hein batean enpresarekin identifikatuko dira.
- **Garapena.** Bere hizkuntza maila hobetzen duen langilea bere garapen profesionalean ere aurrerapausoa ematen ari da.
- **Komunikazioa.** Langile euskaldunek lantokian euskaraz egiteko aukera badute, erosoago sentituko dira, eta, alde horretatik, komunikazioak hobera egingen du. Gainera, langileen hizkuntz eskubideak bermatzen dira horrela.
- **Gizarte erantzukizuna.** Egungo enpresen erronketako bat da, kalitatearekin eta bikaintasunarekin oso lotuta, enpresa kokatua dagoeneko gizartearen garapenerako ardura erakustea, enpresaren arrakastan giltzarri izan daitekeelako. Hizkuntza, jakina, gizartearen ezaugarri garrantzitsuenetakoa da.



4- NOLA TXERTATU EUSKARA ENPRESAN

- Enpresa guztiek, edozein dela haien egoera soziolinguistikoa, euskararen erabilera sustatu dezakete bai idatzizko komunikazioan, bai ahozko komunikazioan.
- Hona euskaldundu daitezkeen atal batzuk:

Idatzizko komunikazioa

- Errotulazioa
- Papertegia eta zigiluak
- Web gunea
- Publizitatea
- Enpresaren esku liburua
- Segurtasun eta osasun mezuak
- Lan parteak
- Nominak eta kontratuak

Ahozko komunikazioa

- Telefonozko harrera
- Erantzungailuaren mezua
- Ahozko harreman informalak
- Ahozko harreman formalak

- Enpresak euskarari sarbidea modu planifikatu eta eraginkorrean emateko, erabilera plan bat garatzeko erabakia har lezake, horretarako aholkularitza enpresa bat kontratatuz. Plan-gintza horren baitan euskararen egoeraren gaineko diagnosia eginen luke, ondotik helburuak eta helburu horiek lortzeko ekintzak planteatuko lituzke eta, azkenik, inplementazioa eta ebaluazioa kontuan hartuko lituzke.



5- NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZA LANTOKI PRIBATUETAN EUSKARAREN ERABILERA ETA PRESENTZIA SUSTATZEKO

Euskararen erabilera lantoki pribatuetan sustatzeko dirulaguntza ematen du Nafarroako Gobernua. Euskarabideak egiten du deialdia eta urte hasieran argitaratzen da.

2023ko deialdia

Kopurua: **141.000 euro.**

MODALITATEAK

- 1. modalitatea:** Euskara Plana egitea 2023an. 25.000 euro.
- 2. modalitatea:** Euskara Planaren kudeaketa 2023an, aurretik egindako Euskara Planari lotua. 100.000 euro.
- 3. modalitatea:** ekintza edo jarduera zehatzak, Euskara Plan bati lotu gabe. 10.000 euro.
- 4. modalitatea:** Hauetara bideratutako inbertsioak. 6.000 euro.
 - Komunikazioaren teknologien esparruan euskara sustatzeko eta/edo zabaltzeko webguneak eta software-aplikazioak euskaraz sortzea.
 - Lehendik dauden webguneen eta aplikazioen bilakaera, aldaketak, hobekuntzak: zerbitzu, funtzionaltasun eta eduki berriak ematea; diseinua edo irisgarritasuna hobetzea, gailu mugikorretan erabiltzeko egokitzea.
 - Webguneak eta software-aplikazioak euskaratzeko lanak.

Aitzineko urteak: [2022ko ebazpena](#) | [2021eko ebazpena](#)



6- BAZTANGO UDALAK ESKAINTZEN DUEN LAGUNTZA

Itzulpen eta Zuzenketa Zerbitzua

Baztango establezimendu komertzialek, enpresek eta elkarteek erabiltzen ahal dute zerbitzu hau. Ez da partikularren itzulpenik onartuko.

Urte guztian zehar eskatzen ahal dira itzulpenak.

Doako zerbitzua da.

Agerian edo jendaurrean dauden testuak izan behar dute.

Testuan aipatzen diren jardueren eremua Baztan izanen da.

Gehienez ere 5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira (5 orrialde = 9000 letragune = 150 lerro).

Ez dira itzuliko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izanen diren testuak.

Ez dira itzuliko bileren deialdiak ezta aktak ere.

Eskariak posta elektronikoko bidez egingen dira:
euskara@baztan.eus

Euskara ikasleendako dirulaguntzak

Diruz lagunduko dira ikastaro estentsiboak, trinkoak eta barne-tegiak.

Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak: 16 urte baino gehiago izatea, ikastaroaren % 80an parte hartu izana ziurtagiri bidez frogatzea, Baztanen erroldatuta egotea eta Nafarroako Gobernuak euskara ikasteko eskaintzen duen dirulaguntza eskatzea.

Dirulaguntzaren onuradunek ezin izanen dute 435 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso deialdi bakoitzeko.

Dirulaguntzaren oinarriak Baztango Udaleko webgunean daude: www.baztan.eus



6- BAZTANGO UDALAK ESKAINTZEN DUEN LAGUNTZA

Errotuluak eta webguneak euskaraz paratzeko dirulaguntzak

Dirulaguntzak ematen zaizkie errotuluak euskaraz paratzen dituzten establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei, elkarteei eta enpresei.

Diruz laguntzen dira egoitzetako, toldoetako eta ibilgailu komertzialetako errotuluak.

Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari gastuen % 50 ordainduko zaio. Gehienez 500 euro emanen zaizkio.

Euskaraz eta erdaraz idatzita dagoen errotulua jartzen duenari % 25 ordainduko zaio. Gehienez ere 250 euro.

Betiere elebitasun pizgarriaren irizpidea erabili beharko da, alegia, euskarazko testuak -tamainarengatik, tokiarengatik edo azpimarratuta egoteagatik- izanen du lehentasuna.

Ez dute dirulaguntzarik hartuko bakarrik izen-abizenak edo toponimoak dituzten errotuluek, ezta gaizki idatziak edo oker gramatikalak dituztenek ere.

Irudi korporatiboaren kasuan honakoak euskaraz paratzeagatik laguntza ematen da: kartazalak, paper menbreduna, bisita-txartelak, identifikazio-zigilua, produktuak biltzeko papera, poltsak, kutxak.

Elementu hauetako testua euskara hutsez jarriz gero, %50 bitarteko dirulaguntza jasoko dute, gehienez ere 120 €.

Webguneen kasuan:

- Euskara hutsezko webgunea sortzeagatik %50 bitarteko dirulaguntza emanen da, gehienez ere 350 €.
- Webgunea elebiz bada, eta euskaraz irekitzen bada, % 50 bitarteko dirulaguntza emanen da, gehienez ere 250 €.

Dirulaguntza jaso ondoren, webgunea euskaraz izaten segitzeko konpromisoa hartu behar da. Ez da onartuko webgunea berriaz erdaraz hutsean paratzea.

Dirulaguntzaren oinarriak Baztango Udaleko webgunean daude: www.baztan.eus



6- BAZTANGO UDALAK ESKAINTZEN DUEN LAGUNTZA

HERRIAN EROSI, EUSKARAZ EROSI EGITASMOA

Herrian erosi, euskaraz erosi egitasmoaren bidez Baztango denden paisaia linguistikoa euskalduntzeko urratsak egin nahi ditugu. Egitasmo honen helburua da euskararen erabilera sustatzeko zerbitzua eskaintzea, eta euskararen ageriko erabilpena orokortzea.

"Herrian erosi, euskaraz erosi" eskualdeko kanpaina sustatzeko ematen dugun zerbitzua bi arlo nagusitan banatzen da: informazioa eskaintzea eta euskarriak prestatu eta banatzea.

Hona kanpaina honen barruan banatuko dugun materiala Baztango establezimendu komertzialetan:

1. Irekita/itxita kartelak.
2. Orduategia jartzeko kartelak.
3. Kartel mutuak.
4. Merkealdia kartelak.
5. Pegatinak eta mahaigainekoak.
6. Janari dendetarako hiztegi irudidunak.

Establezimendu komertzialen batek inprimaki estandarrak nahiko balitu (fakturak, ordainagiriak, emate-agiriak eta abar) Udalean eskatu, eta doan helaraziko dizkiogu.

Aipatutako laguntza bide horietako edozeinen inguruko argibideak behar izanez gero, helbide eta telefono zenbaki hauek erabiltzen ahal dira:

[Baztango Udaleko euskara zerbitzua](#)

Tel.: 948 580 006

e-posta: euskara@baztan.eus

Teknikaria: Kristina Urrutia Apezetxea

